Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5588

AGINDUA, 2010eko abuztuaren 31koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, «Gipuzkoa» Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimenduari Zumarragan (Gipuzkoa) irakasteko baimena emateko dena.

Aztertu da Donostiako «Gipuzkoa» Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimenduaren ordezkariak hasarazi duen espedientea; Zumarragan (Gipuzkoa) irakasteko baimena eskatzeko eman zaio hasiera espedienteari.

Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak izapidetu du espedientea, eta arlo honetan eskudunak diren erakundeek txostena egin dute.

Honako arau hauek ikusi dira: urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena (azaroaren 8ko BOE), martxoaren 3ko 320/2000 Errege Dekretua, futbolaren eta areto-futbolaren espezialitateetan Kirol teknikari eta Goi Mailako Kirol teknikari tituluak ezartzen dituena (martxoaren 29ko BOE), eta gai horretan aplikagarriak diren gainerako legeak. Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Baimena ematen zaio Donostiako «Gipuzkoa» Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimenduari (kode-zenbakia: 20012778; helbidea: Anoetako pasealekua, 5, Donostia, Gipuzkoa; titularra: Euskadiko Futbol Federakundea), 2010-2011 ikasturtetik aurrera, Futbol espezialitateko erdi mailako kirol-irakaskuntza emateko, Zumarragako ondoko instalazio hauetan:

– Urola Garaiko Lanbide Eskola. Antigua, z/g (Beloki etorbidea, z/g).

– Ispilla polikiroldegia. Urdaneta etorbidea, 1.

– Argixao Udal estadioa. Argixao auzoa, z/g.

Edukiera: unitate 1, 30 ikaspostutarako edukieraz.

2. artikulua.– Baimen honek bi ikasturtetarako balioko du.

3. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea agindu honen bi-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5588

ORDEN de 31 de agosto de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza al Centro Autorizado de Enseñanzas Deportivas «Gipuzkoa» la impartición de enseñanzas en Zumarraga (Gipuzkoa).

Examinado el expediente iniciado por el representante de la entidad titular del Centro Autorizado de Enseñanzas Deportivas «Gipuzkoa» de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), en solicitud de autorización para impartición de enseñanzas en Zumarraga (Gipuzkoa).

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa, y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Visto el Real Decreto 1363/2007, de 24 de octubre (BOE de 8 de noviembre), por el que se establece la ordenación general de las enseñanzas deportivas de régimen especial, el Real Decreto 320/2000, de 3 de marzo (BOE de 29 de marzo), por el que se establecen los títulos de Técnico Deportivo y Técnico Deportivo superior en las especialidades de Fútbol y Fútbol Sala, y demás legislación vigente aplicable en la materia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza, a partir del curso escolar 2010-2011, al Centro Autorizado de Enseñanzas Deportivas «Gipuzkoa», n.º de código 20012778, con domicilio en el Paseo de Anoeta, 5, del municipio de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), y cuyo titular es la Federación Vasca de Fútbol-Euskadiko Futbol Federakundea, a impartir las enseñanzas deportivas de Grado Medio en la especialidad de Fútbol en las siguientes instalaciones ubicadas en Zumarraga (Gipuzkoa):

– Urola Garaiko Lanbide Eskola. Antigua, s/n (Avenida Beloki, s/n).

– Polideportivo Ispilla. Avenida Urdaneta, 1.

– Estadio Municipal Argixao. Barrio Argixao, s/n.

Capacidad: 1 grupo con capacidad para 30 puestos escolares.

Artículo 2.– La presente autorización tendrá una validez de dos cursos escolares.

Artículo 3.– El centro queda obligado al cumplimiento de la normativa vigente en cuanto a la titu-

dez baimendutako irakaskuntzak emango dituzten irakasleen titulazioari dagokionez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

4. artikulua.– Martxoaren 3ko 320/2000 Errege Dekretuaren VI. eranskinak segurtasun eta erantzukizunaren alorrean eta irakaskuntza- eta kirol-ekipamenduaren alorrean ezarritako baldintzak bete beharko ditu zentroak. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna zentroaren titularrarena izango da.

5. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene, osasun, akustika, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak ere. Ikastetxearen titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abuztuaren 31.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

lación del profesorado destinado a impartir las enseñanzas autorizadas por la presente Orden. En caso contrario, procedería la revocación de la autorización otorgada.

Artículo 4.– El centro deberá cumplir los requisitos que en cuanto a seguridad y responsabilidad y a equipamiento docente y deportivo establece el anexo VI del Real Decreto 320/2000, de 3 de marzo. La responsabilidad por el incumplimiento de dichas condiciones corresponde al titular del centro.

Artículo 5.– El centro deberá cumplir el Código Técnico de la Edificación, aprobado por el Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, así como las condiciones higiénicas, sanitarias, acústicas, de habitabilidad, de seguridad y de accesibilidad que se señalen en la legislación vigente. La responsabilidad por el incumplimiento de dichas condiciones corresponde al titular del centro.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de agosto de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.